



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/01/26

11 herrialdeetatik etorritako 300 gaztek NBEren bilerea simulau dabe Gernikako Batzarretxean

COAS Hezkuntza Taldeak sustautako eta Ayalde-Munabe ikastetxeetako ikasleek antolatutako Euskadiko Model United Nations (MUN) lehenengo konferentziaren barruan, 11 herrialdeetatik etorritako 300 gaztek Nazino Batuen Erakundearen (NBE) Batzar Nagusia irudikatu dabe gaur Gernikako Batzarretxean.

Domeka honetara arte, urtarrilaren 29ra arte, luzatuko dan nazinoarteko hezkuntza proiektu horretako ekitaldi nagusia Batzar Nagusietako egoitzan egin da, eta Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentea, Tamara Zabala NBEren Espainiako zuzendari nagusia, Lorea Uribarri Basque Know How Fundazinoko zuzendaria eta Ana Pérez Saitua COASeko zuzendari pedagogikoa izan dira ekitaldiaren buru.

Bizkaiko Batzarretako kideen jarlekuak Nazino Batuen “enbaxadore” gazteek hartu ditue gaur arratsaldean, eta Nazino Batuen antolakuntzaren agendaren inguruko gaiet buruz behar egin eta eztabaidatu eta horreen gaineko ebazpenak emon ditue. NBEren Batzar Nagusi batean erabilten dan eskema berberagaz, Gernikan 50 gaztek baino gehiagok hartu dabe parte Bizkaiko Batzarretan, batxilergoko ikasleek osatutako ordezkariak euren planteamentuen inguruan konbenziduteko asmoz. Hurrengo hiru egunetan ingurumenaren, hezkuntzaren, gosea desagertuazotearen, garapen iraunkorraren, osasunaren, giza eskubideen, ekonomiaren edo segurtasunaren inguruan egingo dabe berba, beste gai batzuen artean.

MUN izena, ingeleseko Model United Nations (Nazino Batuen Eredua) siglatatik sortu da. Izen horregaz, orain 50 urte baino gehiagotik –idea Harvardeko Unibersidadean sortu zan XX. mendearen erdialdean– kongresuak egiten ari dira hezkuntzako erakunde garrantzitsuetan, ikasleak eurak antolatuta eta buru dirala. Kongresu horreetan Nazino Batuen Erakundearen beharra irudikatzen da, eta baita NBEren erakunde espezifikoa be: Batzar Nagusiarena, Segurtasun Kontseiluarena eta Giza Eskubideen Kontseiluarena.

MUNi esker, ikasleek eztabaidako eta gatazkako teknikak lantzen ditue, ingelesa hobetzen dabe (saio guztiak ingelesez izango dira), gaitasunak garatzen ditue informazioaren bilaketan eta laburpenean, erabagiak hartzen ditue eta arazoan ebazpenean egiten dabe behar. Gainera, benetako munduan gertatzen diran arazoan inguruko kontzientzia hartzen dabe eta adiskidetasuneko loturak ezarten ditue ordezkariaren artean.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
26/01/2017

300 jóvenes de 11 países simulan en la Casa de Juntas de Gernika una reunión de la ONU

Dentro de la celebración de la primera conferencia Model United Nations (MUN) en Euskadi, promovida por el Grupo educativo COAS y organizada por alumnas y alumnos de los colegios Ayalde y Munabe, 300 jóvenes venidos de hasta 11 países han recreado hoy en la Casa de Juntas de Gernika una Asamblea General de las Naciones Unidas (ONU).

El acto principal de este congreso internacional educativo que se alargará hasta este domingo, se ha celebrado en la sede parlamentaria vizcaína bajo la tutela de la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, la directora general de la ONU en el Estado español, Tamara Zabala, la directora del Basque Know How Fundazioa, Lorea Uribarri, y la directora pedagógica de COAS, Ana Pérez Saitua.

Los escaños de las junteras y junteros vizcaínos han sido ocupados esta tarde durante dos horas por jóvenes “embajadores” de las Naciones Unidas, quienes han trabajado, debatido y redactado resoluciones sobre cuestiones incluidas en la agenda de la organización mundial. Con el mismo esquema que se utiliza en una Asamblea General de la ONU, en Gernika han intervenido más de 50 jóvenes intentando convencer a las distintas delegaciones conformadas por alumnas y alumnos de bachiller, de las bondades de sus planteamientos. Durante los próximos tres días hablarán de medio ambiente, educación, erradicación del hambre, desarrollo sostenible, salud, derechos humanos, economía o seguridad, entre otros muchos temas.

MUN nace de las siglas en inglés Model United Nations (Modelo de las Naciones Unidas). Bajo este nombre se llevan organizando desde hace más de 50 años –la idea nació en la Universidad de Harvard a mediados del siglo XX- congresos de prestigiosas instituciones educativas que están liderados por los propios estudiantes. En ellas se recrea el trabajo de la Organización de las Naciones Unidas, así como el de los órganos específicos de la ONU: Asamblea General, el Consejo de Seguridad y el Consejo de Derechos Humanos.

Gracias a MUN, las alumnas y alumnos practican técnicas de debate y controversia, mejoran su inglés, desarrollan competencias en la búsqueda y síntesis de la información, toman decisiones y trabajan en la resolución de problemas. Al mismo tiempo, se conciencian sobre los problemas que acontecen en el mundo real y crean lazos de amistad entre las diferentes delegaciones.